

GI PUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



27. Informazio Buletina
2008ko Iraila





Inforegio newsletter-a: Open Days

Inforegioren iraileko informazio oharrean urriaren 6tik 9ra bitartean egingo diren Open Days, Eskualdeen eta Hirien Europako Astea izeneko nabarmendu behar da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/newsroom/newslet172/172_08_es.pdf





KOMUNITATEKO POLITIKAK

Energiaren kontsumoari dagokionez eragingarriagoa den merkantzien garraiorantz

Europako Parlamentuak Europar Batasuneko merkantzien garraioaren inguruko txostena onartu du (botoen % 96rekin). Bertan, sektore horretako CO2 igorpenak gutxitu eta eragingarritasun energetikoa lehenbailehen hobetu beharra dagoela ohartarazten du.

Era berean, 2000 eta 2020 artean merkantzien garraioan % 50eko igoera (kilometro bakoitzeko tonatan) gertatuko dela aurrez ikusi dutela kontuan hartuta, Europako Parlamentuak errepideen alternatiba gisa, trenaren erabilera bultzatzeko eskatu du.

Informazio gehiago:

http://www.europarl.europa.eu/news/expert/infopress_page/062-36123-245-09-36-910-20080903IPR36122-01-09-2008-2008-false/default_es

Komunikazioa:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2007:0606:FIN:ES:PDF>

Ikerkuntza eta garapen teknologikoa Europar Batasunean

Europar Batasuneko ikerkuntza eta garapen teknologikoko jardueren inguruan Europako Batzordeak egin duen urteko txostenean, 2007. urteko ekimen politiko nagusien artean, honakoa nabarmendu du ikerkuntza arloan: Liburu Berdea, Ikerkuntzako Europako Esparrua: ikuspegi berriak.

Bestalde, giza baliabide zientifikoen iraunkortasuna oraindik ere ardura handia dela aipatu du; batez ere, kide diren Estatu ugarietako pertsonal ikerlariaren pixkanakako zahartzea dela eta. Munduko egoeraren beste ezaugarri aipagarri bat Estatu Batuek talentua duten mundu osoko ikerlariak erakartzeko duten gaitasuna da.

Informazio gehiago:

Urteko txostena:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0519:FIN:ES:PDF>

Liburu Berdea:

http://ec.europa.eu/research/era/pdf/era_gp_final_es.pdf

Nekazaritzaren egoera Europar Batasunean

Txostena, 2006. urteari dagokiona, urte horretako nekazaritzaren bilakaera laburtzen duten 36 atal laburretan egituratuta dago.

Alderdi nagusien artean, hauek aipatu behar dira: nekazaritzako produkzioa % 4 jaitsi zen nekazaritza sektorean eta % 1 abeltzaintzan; prezioak % 2 jaitsi ziren termino errealetan eta nekazarien kopuruak ere gutxitzen jarraitu zuen.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0525:FIN:ES:PDF>



Enpresaren izaera goi mailako irakaskuntzan

Txostenak goi mailako irakaskuntzako Europako zentroetako enpresa kutsuaren hezkuntzari dagokion ikuspegia erakusten du. Beste herrialde batzuekin alderatuta (Estatu Batuekin, esate baterako) Europako ekintzailetzak agertu duen defizita hazkunde ekonomikorako oztopo bihurtu da.

Hori dela eta, Europak Lisboako Estrategiak ezarritako helburuak bete nahi baditu hazkundeari eta enpleguari dagokionez, kultura ekintzailea premiazkoa dela bultzatu beharko du. Kultura horretan, enpresa jarreraren sustapenak funtsezko rola betetzen du goi mailako irakaskuntzako ikasketa programetan.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/enterprise/entrepreneurship/support_measures/training_education/entr_highed.pdf





e-LIBURUTEGIA

Europar Batasuneko proiektzio demografikoak

Eurostatek egindako populazioaren proiektzioek (2060. urtea jomuga dutenak) EB-27ko biztanleria pixkanaka handitu egingo dela aurrez ikusi dute. 2008. urteko populazioa 495,4 milioi lagunekoa izatetik, 2035ean 520,7 milioikoa izango dela estimatu dute. Aldiz, urte hartatik aurrera jaitsi egingo da: 2060. urtean 505,7 milioikoa izateraino.

Populazioaren batez besteko adina handitu egingo da aldi horretan 40,4 urtetik 47,9 urtera. Aldiz, 65 urteko edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoa % 17,1ekoa izatetik, % 30ekoa izatera pasatuko da. 80 urteko edo gehiagoko pertsona kopurua hirukoiztu egingo da epe horretan.

Eta 2008. urtean lan egiteko adina (15 urte eta 64 urte artean) duten 4 pertsona daude 65 urteko edo gehiagoko pertsona bakoitzeko; aldiz, 2060. urtean, proportzio hori 2tik 1era artekoa izango dela aurrez ikusi dute.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-08-072/EN/KS-SF-08-072-EN.PDF

Ikerkuntza Zientifikoko eta Garapen Teknologikoko jarduerak (i+g) Euskal Autonomia Erkidegoan

Eustatek prestatutako I+G jardueren inguruko estatistikaren azterketa 2006ko emaitzetan oinarrituta dago Zentro Teknologikoetako jarduerari eta gastuari zein Europar Batasuneko benchmarking-ari dagokionez.

I+G arloko gastua % 1,47koa izan zen Euskadiko BPGko partaidetzari dagokionez aldi horretan; beste nolabait esanda, EB-27ko batez bestekoa baino baxuagoa izan zen (% 1,84).

Gipuzkoaren kasuan, partaidetza % 1,79koa izan zen; % 65 enpresen sektoreari zegokiona izan zen eta arlo horretan lanean ari zirenen kopurua 5.392 pertsonakoa izan zen.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/ele0004700/inf0004737_e.pdf

Zientzia eta Teknologia arloko jardueretan lan egiten duten pertsonak Europar Batasunean

EB-27n, 59 milioi pertsona inguruk zuten lanbide zientifikoa eta teknikoa 2006. urtean. Horien artean, ia bostena zientzialariak eta ingeniariak ziren (fisikarekin, matematikarekin edo ingeniariarekin, eta bizitza eta osasun arloko zientziekin lotutako lanbideak zituztenak). Gutxi gorabehera, laurena beste profesional batzuen moduan daude gaituta, eta gainerakoak teknikariak eta elkartutako profesionalak ziren.

Pertsona horiek EB-27ko enpleguaren % 31 biltzen dute; horien presentzia nabarmendu beharrekoa da sektore hauetan: hezkuntza, osasuna eta herri administrazioa.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page?_pageid=1073,46587259&_dad=portal&_schema=PORTAL&p_product_code=KS-SF-08-077



ADIERAZLEAK

Gipuzkoako BPG % 0,6 hazi da bigarren hiruhilekoan

Urteko bigarren hiruhilekoan, Gipuzkoako BPGk (kateatutako bolumen indizea) % 0,6ko igoera izan du aurreko hiruhilekoko datuekin alderatuta. Gainera, hazkunde erritmoa ehuneko hamarren batean mantsotu da.

Urtetik urterako aldaketari dagokionez, hazkundera % 2,6koa izan da. Tasa hori EB-27koa (% 1,7) eta kide diren estatu nagusietakoa baino altuagoa da: Alemania (% 1,7), Frantzia (% 1,1), Erresuma Batua (% 1,6) eta Espainia (% 1,8).

Informazio gehiago:

<http://www.eustat.es/estad/coyunturalista.asp?idioma=e&clave=16>

UdalGIDA: Gipuzkoako udalerrietako adierazleen eguneratzea

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuna eta Finantzak Departamenduaren udal estatistikako informazioa 2006. urteari dagozkion datuekin eguneratu dute. Besteak beste, udalerrien mailan (aitorpenak, zehaztutako zenbatekoak), Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin (PFEZ) eta likidazio oinarriarekin eta batez besteko tasa efektiboarekin lotutako datuekin eguneratu dute.

Lurralde osoari dagokionez, biztanle bakoitzeko likidazio oinarria 11.028 eurokoa da eta batez besteko tasa efektiboa, aldiz, % 16,9koa. Guztira, 363.694 aitorten egin ziren.

Era berean, UdalGIDA aldizkariak aparteko alea ere argitaratu du udalerrien arabeko PFEZ 2006ren azterketa landuz. UdalGIDAren ale berezi horren helburua 2006ko ekitaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) inguruko emaitzak jakinaraztea da xehetasun maila altuarekin lurraldeari zein edukiei dagokienez.

Aitorpenak zergadunaren bizitoki udalerraren arabera bildu dira multzoka. Era berean, udalerrri bakoitzeko aitortenak bi eratan bildu dituzte: biztanle kopuruaren arabeko udalerrrien taldeka eta eskualdeka.

Informazio gehiago:

<http://webwpub1.gipuzkoa.net/wps/portal/ogasuna/udalgida>



Urban Audit : Bizi kalitatea Europako hirietan

Eurostatek eta Eskualde mailako Politikaren Zuzendaritza Nagusiak egindako auditorian 50.000 biztanle baino gehiagoko populazioa duten Europako 357 hiritako 300 adierazle baino gehiago agertzen da. Bizi kalitatearekin lotutako hainbat alderdi lantzen ditu auditoriak: demografia, etxebizitza, osasuna, segurtasuna, enplegua, ezberdintasunak, hezkuntza, ingurumena, klima, informazioaren gizartea eta kultur mailako azpiegiturak besteak beste.

EB-27ko biztanleen % 74 5.000 biztanle baino gehiagoko hirietan eta udalerrietan bizi dira. Hori kontuan hartuta, Lisboako Estrategiaren lehentasunetako bat eskualdeetako eta hirietako erakargarritasuna hobetzea da.

Bizi kalitate ona funtsezko gakoa da biztanle kualifikatuak, ekintzaileak, ikasleak, turistak eta abar erakartzeko eta bertan atxikitzeko (guztiak hirian bizi direnak).

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-08-082/EN/KS-SF-08-082-EN.PDF





PARTAIDETZA

IKTetarako ikerkuntzarako eta berrikuntzarako Europako estrategia 2020

Europako Batzordeak kontsulta publikoa jarri du abian datorren hamarkadan IKTen (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) arloko ikerkuntzako eta berrikuntzako Europako estrategia zehazteko asmoz. Kontsultarako epea azaroaren 7an amaituko da.

Kontsultak hiru galdera nagusi biltzen ditu:

Zein dira ikerkuntzak eta berrikuntzak IKTen sektorean aurre egin beharko dieten erronka nagusiak? Nola eta zer sektoretan izan beharko luke Europak lidergoa bere gain hartzeko helburua? Zein da politika publikoen rol nagusia Europa IKTen sektoreko berrikuntza arloan postu aipagarrian kokatu ahal izateko?

Nola indartu daiteke ikerkuntzako politika IKTen sektorean berrikuntzako Europako merkatua sortu ahal izateko? Nola egokitu daitezke politikako alderdi osagarri batzuk (normalizazioa, lizentziak ematea eta jabetza intelektualeko erregimenak, esate baterako) ikerkuntza arloko emaitzen komertzializazio bizkorra babestu ahal izateko?

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/08/1287&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=en>

Europako biztanleria klima aldaketaren aurrean

Eurobarometroaren txostenak 2008ko martxo-maiatza aldian EB-27ko 30.170 herritarri egindako inkestaren emaitzak biltzen ditu herritarrek mundu mailako beroketaren eta klima aldaketaren inguruan duten hautematea eta inpaktua, informazio maila, fenomeno horien aurrean dituzten jarrerak eta horiekin lotutako neurriak eta helburuak neurtu eta ezagutu ahal izateko.

Ondorioen artean, nabarmendu beharrekoa da klima aldaketa mundu mailako arazo nagusietariko bat dela jendearen ustez (txirotasunaren ondoren). Europar gehienek ezagutzen dute CO2ren igorpenek klima aldaketan duten eragina eta ia herritarren erdiek agertu dute berotegi efektua duen gas gutxiago igortzen duten iturrietatik eratorritako energiaren truke gehiago ordaintzeko prest dagoela.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/ebs/ebs_300_full_en.pdf